Etorkinak: hizkuntza eta lana

---------- Taldeko eztabaidarako gidoia ----------

1. Zuen ustez, toleranteak gara etorkinen hizkuntzekin? Nor dira malguagoak: gazteak, herrikoak, hirikoak, euskaldunak, unibertsitarioak...?

2. Etorkinak, oro har, saiatzen dira gure kultura ezagutzen? Nongoak gehiago?

3. Atzerritar gehienek gaztelania kalean ikasten dute. Euskara ere berdin ikasten ahal da?

4. Etorkinak gizarte aberats honetako esklaboak al dira? Justuak gara etorkinekin? Eta etorkinak beste etorkinekin?

5. Etorkinak prostituzioarekin, droga-trafikoarekin eta delinkuentziarekin identifikatzen ditugu maiz. Bidezkoa al da lotura hori egitea?

a eredua

ETORKINAK: HIZKUNTZAK ETA LANA

Hizkuntza bakarra zen garaian, ekialdetik etorritakoak Shinarko lurretan finkatu eta elkarri esan zioten: "Eraiki dezagun herri bat eta dorre bat, zerura iritsiko dena". Eta Jehova herria ikustera jaitsi zenean, dorrea eraikitzea harrokeria izugarria iruditu zitzaionez, erabaki bat hartu zuen: hizkuntza desberdinak hitz eginaraztea, ondokoak zioena ulertzeko modurik ez izateko.

Horrela, Lur osoko hizkuntzak bereizirik eta herritarrak sakabanaturik geratu ziren.

ETORKINAK BILBOKO SAN FRANTZISKO AUZOAN

Beatriz Diaz, Bilboko San Frantzisko auzoko bizilaguna

Euskal Herria ez da salbuespena. Gure artean ere nekez onartzen ditugu etorkinak, gero eta gehiago diren arren. Benetako egoera zertan den jakiteko, Bilbora hurbildu gara, bertako auzokidea den Beatriz Diazen eskutik. Hasteko, etorkinek beste hizkuntza bat ikasi behar dutela kontuan hartu dugu eta hizkuntzen erabilerari erreparatu.

Hizkuntzen erabilera

Bilboko San Frantzisko da erlijio gehien praktikatzen eta hizkuntza gehien mintzatzen den auzoa. Jende askok, batez ere afrikarrek, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dute eguneroko solasaldietan, solaskide berberarekin ere bai.

Idazketari dagokionez, hizkuntza afrikarrek ez dute idatzizko tradiziorik (horrek ez du esan nahi, ordea, literaturarik ez dutenik). Oraintsu arte, historia, ipuinak, mitoak, tradizioak eta herri bakoitzeko pasadizoak ahoz aho transmititzen ziren. Bazeuden leku guztietan herri osoaren begirunea merezi zuten pertsonak, ezagutza horiek buruan gorde eta besteei transmititzen zizkietenak. Oraindik ere horrela jarraitzen dute, nahiz eta komunikabide modernoak gero eta gehiago erabiltzen dituzten, irrati-telebista eta prentsa batez ere.

Ali (salerosle ganbiarra)

Tambassan jaioa da. Tambassaren parean *mandinga*-herri bat bizi da. Hiritik kanpoko inguruetan, artzain-talde *peul* bat dago aspalditik finkatuta. Hurbilen dagoen hiriburuan salerosle *wolof* asko daude eta *diola*-herrixkak ere bai. Dendarik handienak *arabiarren* eskuetan daude. Ali-k arabiera Tambassan dagoen eskola koranikoan ikasi zuen; bada hirian ingelesa ikasteko eskola bat ere.

Horregatik Ali hizkuntza anitzetan mintzatzen da: *ingelesez, euskaraz, gaztelaniaz, arabieraz, frantsesez, wolofez, mandingaz* eta *sarakolez*. Hala ere, jende askok uste du "beltzak ez dakiela hitz egiten edo ez duela deus ere ulertzen". Hori dela eta, txorakeria franko entzun behar izaten dute, hizkuntza bat edo agian bi besterik erabiltzen ez dakienaren ahotik.

Momudu

Goizean esnatu bezain laster, bere otoitzak egiteko *arabiera*, Koraneko hizkuntza, erabiltzen du; etxebizitzako kideekin *wolof* beren ama-hizkuntza; azoka txikian gaztelania, beste salerosle marokoarrekin eta aljeriarrekin frantses-arabiera nahasia. Eguerdian bere herritarrekin bazkaltzen du eta *wolof* hizkuntzan mintzatzen da telebistako gaztelaniazko albisteak komentatzeko. Arratsaldeko bostak aldean arabieraz egiten du berriro bere otoitza. Kalera salgai bila eta auzoko kideekin egotera ateratzen denean hizkuntza anitz erabiltzen ditu, solaskidearen hizkuntza zein den: *wolofa, frantsesa, gaztelania* edo *arabiera*.

Legez kontrako edo ez-moraltzat jotzen diren gauzak salerosten aritzen direnek (legez kontrako maila apaleko drogak, pertsonen trafikoa edo prostituzioa) kontuz ibili behar izaten dute ingurukoekin, eta jendeak ulertzen ez dituen hizkuntzetan mintzatzen dira.

Demba, Malin jaiotako marinel gaztea: duela urtebete San Frantzisko auzoan bizi da. Demba *bambara* herrikoa da eta hainbat herrialdetako marinel batzuekin batera bizi da, senegaldar *serere, diola, peul* eta *mandingekin*. *Wolof* mintzaira erabiltzen dute etxean, nahiz eta inoren ama-hizkuntza ez izan, hori baita Senegalen hedatuen dagoen hizkuntza; oker edo zuzen, aski ongi moldatzen dira elkarrekin hitz egiteko. Oraindik orain Baba, Maliko gazte *bambara*, etorri zen auzora. Zalantza-izpirik gabe Dembak lekutxo bat egin zion etxean oso estu bizi ziren arren (gela bakoitzean pertsona bat baino gehiago beti, askotan koltxoia ere partekatu beharrean).

Batzuetan itzultzaile batengana jotzen dute zenbait zereginetarako, ez baitute behar hainbateko hizkuntz mailarik edo bere buruarekiko konfiantzarik: medikuarengana edo guardiako epaitegira joan behar dutenean, edo norbaitek neskaren bati gustukoa duela deklaratzeko. Batzuetan ez da itzulpen kontua soilik izaten, larruazalaren koloreari lotzen zaion azentua ezkutatu nahia edo beharra baizik. Esate baterako, etxe bat errentan hartzeko.

b eredua

ETORKINAK: HIZKUNTZAK ETA LANA

Hizkuntza bakarra zen garaian, ekialdetik etorritakoak Shinarko lurretan finkatu eta elkarri esan zioten: "Eraiki dezagun herri bat eta dorre bat, zerura iritsiko dena". Eta Jehova herria ikustera jaitsi zenean, dorrea eraikitzea harrokeria izugarria iruditu zitzaionez, erabaki bat hartu zuen: hizkuntza desberdinak hitz eginaraztea, ondokoak zioena ulertzeko modurik ez izateko.

Horrela, Lur osoko hizkuntzak bereizirik eta herritarrak sakabanaturik geratu ziren.

ETORKINAK BILBOKO SAN FRANTZISKO AUZOAN

Auzo horretan hizkuntza eta kultura hain desberdinak elkarrekin bizi direnez, ezinbestez sortzen dira komunikazio-arazoak ere. Gaizki ulertuak eta konfiantzarik ezak sor ditzaketen sesioak errazago saihets ditzakete hizkuntza anitz ezagutzen dituztenek. Immigrazio-kontuetan eskarmentu handiagoa duena eta gaztelaniaz hobeto mintzatzen dena erreferentzia-gune eta bitarteko bihur daiteke gestio askotan.

Rose, Nigeriako emakume gaztea, John bere herrikideaz mintzo:

"Bilbon emakume nigeriar asko bizi gara. Batzuek zenbait urte egin ditugu hemen, baina ez dugu gaztelania ondo ikasi. Gu ingelesez mintzatzen gara, eta zaila egiten zaigu gaztelania ikastea. Egun osoan tabernan sartuta lanean, eta gestioren bat egin behar dugunean ez gara ondo moldatzen: dokumenturen bat berritu behar denean, edo zerbait bidali nahi dugunean. Askok Johnengana jotzen dugu: itzuli egiten dizu, esplikatu, lagundu. Ia ezagutzen ez bazaitu ere, beti egoten da laguntzeko prest."

Batzuk bakarrik joaten dira, eta egoera jakin batzuetan, *"Helduen Hezkuntzarako Ikastetxe Berezi*" batera gaztelania ikastera.

Aisha marokoarra:

"Si tú quieres prender hablar, lo que tienes que hacer es hablar con la gente en la calle. (…) Cuando no tienes más remedio es cuando prendes."

Sergio senegaldarra:

Wolof hizkuntzaz hitz egiten du eta kaleko salerosketan aritzen da. Honela mintzo zaigu:

"Para vender la calle no hace falta hablar castellano. Es mejor si no sabes. Mucho mejor, porque la gente compra más. Piensan que no tiendes y que te pueden gañar, y compran más. Pero no gaña la gente, no. No nesitas castellano, sólo la calculadora. Haces la cuenta, cobras y ya está."

Aishak klubetan lan eginez ikasi zuen gaztelania. Sergiok, Bizkaiko herrietako kale eta tabernetan. Bizimodua ateratzeko saldu beharrak bultzatu zituen gaztelania ikastera. Aishak eta Sergiok bezala, auzoko kanpotarrek eguneroko martxan ikasten dituzte hizkuntzak. Dembak marinel euskaldunekin ikasi zuen gaztelania**.** Johnek kartzelan hobetu egin zuen; beste batzuek Almeriako "plastikozko itsasoan" lortu zuten ikastea, gizonezkoek emakume espainiarren batekin edo alderantziz; beste batzuek etxean bizi ziren hizkuntza desberdineko kideekin. Askok erosketak egiteko bakarrik erabiltzen dute gaztelania eta ama-hizkuntza gaztelania ez duten eta lanean edo aisialdian elkarrekin ibiltzen diren pertsonekin. Horregatik, bakoitzak bere hizkera berezia eta propioa du, etorkin gisa egin duen ibilbidearen arabera.

Jon senegaldarra

Jonek aski ongi hitz egiten du gaztelaniaz, Tarragonako eta Bilboko ostatuetan, etxebizitzetan eta kartzeletan hamabost urtez ibili eta gero. Batzuetan, gaztelaniaz mintzatzen denean, "mané" esanez hasten da (*wolof*-ez "hau da" esan nahi du) eta "rek" beste makulu-hitz batekin amaitzen du ("besterik gabe" esan nahi du). Ahapetik kantatzen dituen abestiak, esaerak eta errefrauak, ingelesez ateratzen zaizkio, txikitan ingelesa ikasi baitzuen; diosalak eta agurrak, berriz, euskaraz.

San Frantzisko auzoan gertatzen denak adierazten digu hizkuntzak ez direla ikastaroetan bakarrik ikasten; eta beste kulturak eta ikuspuntuak trukatzeko ez dela norbere herrialdetik edo hiritik urrutira joan behar; aski dela inguruko jendeari erreparatzea, entzutea eta harekin hitz egitea. Horixe da Bilboko San Frantzisko auzoko etorkinek hizkuntzak ikasteko erabiltzen duten metodoa.

c eredua

ETORKINAK: HIZKUNTZAK ETA LANA

ETORKINAK ETA LANA

Gaur egun, askoz ere etorkin gehiago daude gure artean, zeren lan eskaintza handitu egin da sektore berrietan eta hemengo jendeak egin nahi ez dituen lanetan. Marinel senegaldar asko daude gure kostako herrietan, arrantzari lotutako lanetan. Etorkin asko eraikuntzan, baso-lanetan, fabriketan (kautxua, arraina, haragia saltzeko prestatzen) edo supermerkatuetan *(Mercabilbao*, *Eroski*) aritzen dira. Beste asko igeltserotzan aritzen dira, edo maila apaleko droga-trafikoan, elektrizitatean, iturgintzan, okindegietan, gozotegietan, zurgintzan, itzultzaile-lanetan, hizkuntzak edo dantzak irakasten, lorezaintzan edo musikari gisa.

Etorkin askok ofizioz aldatu behar izan dute. Badaude abokatuak, gizaseme nahiz emakume, zaharrak zaintzen aritzen direnak, klinikako laguntzaileak joskintzan; edo mekanikariak, irakasleak edo informatika-teknikariak azoka txikietan gauzak saltzen dabiltzanak.

Emakumerik gehienak etxeko lanetarako hartzen dituzte, haurrak edo zaharrak zaintzeko, klinika edo eritegi pribatuetan, tabernetan edo klubetan. Beste hainbat beren etxeko lanetan aritzen dira, eta badira bestelako ofizioetan saiatzen direnak ere: irakasle, pintore, jostun eta sukaldari gisa.

Bestalde, emakume asko prest daude egoera kaskarrean ere lan egiteko, jaioterrian dauden haurrei eta familiakoei lagundu behar izaten dietelako, edo zorrak ezinbestean kitatu behar dituztelako. Egoera hori aprobetxatuz, hemengo jende askok aukera ezin hobea du emakume horien lanaz baliatzeko.

Etorkinik gehienek aldian-aldian dirua bidali behar izaten diete familiakoei, nahiz eta beraiek ia ezer gabe geratu.

Etorkinek edozein herritarren moduan jardun nahi dute, baina Atzerritartasunaren Legeak eta gobernuek diskriminatzen dituzte.

Bi lan deigarri aipa daitezke Bilboko San Frantzisko auzoan: legez kontrako droga-trafikoa eta salerosketak, dendaren batean edo kalean.

San Frantziskon ijito ez zirenak hasi ziren trafiko-kontuan; gero, ijitoek jarraitu zuten, eta denbora asko ez dela etorkin atzerritarrak hasi dira horretan. Denak ez dira maila berdinean sartzen: batzuk bitartekoak dira eta neurri txikian aritzen dira, beste batzuk kopuru handiagoetan. Etorkin batzuk kokainaren eta heroinaren mendean daude, askotan kalean egiten dute lo, batez ere aspaldi Magreb-etik etorriek; gutxiago dira afrikar beltzak, nahiz eta ugaritzen ari diren.

Etorkin asko kalean hasi ziren gauzak saltzen, gero azoka txikietan salmenta-postuak lortu zituzten eta zenbait salgairekin proba egin: imitaziozko bitxiak, poltsak, arropa, alfonbrak, telefonoak, harategi musulmanak, tabernak... Etorkin horiei urteetan barrena beste salerosle asko gehitu zaizkie: ekuatoreginearrak, angolarrak, nigeriarrak, txinatarrak, hinduak, jaioterriko janari-saltzaileak, *Todo a Cien*, musika-dendak, ile-apaindegi afrikarrak... Bezerorik gehienak etorkinak berak dira, nahiz eta hemen jaioak, gero eta gehiago joaten diren.

Askotan gertatu ohi da, poliziaren batek kalean saltzen ari den bati, atxilotzeko edo itauntzeko unean, esku artean zuen dirua edo salgairen batzuk lapurtzea. Era horretako lapurreta batzuk salatu izan dira. Baina, beste asko gordean geratu dira, isilpean, polizien mendekuen edo kanpora bidaliko dituzten beldurrez, edo behar bezalako dokumentaziorik ez dutelako.

Ohikoak eta normalak dira familiako negozioak edo herrikideen artekoak. Esan behar da asko laguntzen diotela elkarri. Azoka txikietako postuak elkarren artean banatzen dituzte, etorri berriari kalean saltzen laguntzen diote; jatekoa eta ostatua ziurtatzen dizkiote etorri berriari, dirua irabazteko modurik ez duen bitartean. Etorkin batzuk saltzaileak ziren jaioterrian ere, ijitoen artean gertatzen den bezala. Beste batzuk prestakuntza profesional, tekniko eta unibertsitarioarekin etorri dira jaioterritik, baina dokumentazioa legeztatuta ez dutenez, eta gobernuek ezartzen dituzten eragozpenak handiak direnez, ezin izaten dute beren lanbidean jardun.